

MENDIRUNTZ

(Neure adiskide Karmel-mendi'ri, au da:
Aita Rikardo Espinosa Etxebarria'ri)

Argidiriak mendi tartetik dirdira dagi;
atsegin dira zelaiak;
eguzkiaren urregorizko izpi me-meak
argitu dauz goi-aldiak.

Mendiko gentza, basoko poza eta zoruna
beti izan yataz gogoko;
baita barruan gogo bizia sortu be egin yat
arin bertara igoteko.

Ardi zuriak egiñiriko bide-zidorrez
tontor gaiñeruntz ni noia,
bere burua gora ta gora ortze urdiñaz
bat egitera iez doia.

Betik goraiño gal-ron askoz josita dira
bere lepazur zorrotzak,
baiña bein ara igon ezkeru poz-atsedenez
asetzen ditu biotzak.

Aldapan gora arrisku orok beraturikan
igoten daunak mendia,
gero an goian, tontor gaiñean, aurkituko dau
maitasunezko kabia.